

# Osoko bilkura

Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean

2019ko martxoaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, buruordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Azkarate, Miren,  
Goenaga, Patxi,  
González de Viñaspre, Roberto,  
Kaltzakorta, Jabier,  
Oñederra, Miren Lourdes,  
Peillen, Txomin,  
Sagarna, Andoni,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi,  
Urkia, Miriam eta  
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun, zegozkion gaietan.

**Ezin etorria adierazi dutenak:** Aurelia Arkotxa, Andres Iñigo, Jose Irazu “B. Atxaga”, Patxi Salaberri eta Patxi Zabaleta.

**Ahalak:** Aurelia Arkotxak ahala Sagrario Alemani; Andres Iñigok ahala Sagrario Alemani; Jose Irazu “B. Atxaga”k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Miriam Urkiak ahala Andoni Sagarnari (iritsi bitartean); Patxi Zabaletak ahala Sagrario Alemani.

## **1. Osoko bilkurako (2019-02-22) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.**

P. Zabaletak 3. orrialdeko azken paragrafoko “... prestatuko du definizio-proposamena” esaldia, “... definizioa zehaztu beharra adierazi du” esaldiagatik ordezkatzeara proposatu du. Eginiko proposamena ondo ikusi da Osoko bilkuran.

A. Urrutiak bestelako oharrrik egin nahi den galdetuta, Miren Lourdes Oñederrak zuzenketa bat proposatu du agiriaren 2. puntuan, baina ez da onartu. Bestelako oharrrik ez da egin. Ondorioz, 2019ko urtarrila ren 25eko bilera-agiria onartu da.

## **2. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (X). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.**

Otsaileko Osoko bilkuran martxoaren 18 arte zabaldu zen *gaileta/galleta* formei buruzko oharrak egiteko epea. Epe horren barruan M. Azkaratek bi formen erabilerari buruzko datuak jasotzen dituen txosten bat aurkeztu du. Ondorio gisa dio badirudiela *gaileta* forma hartu dela “jakia” adierako forma batutzat.

Batzorde Ahaldunduaren arduradunak datu horiek osatzen eta argitzen dituen txostena aurkeztu du, *gaileta/galleta* formen erabileraren datuek parekotasun handia izan dutela erakusteko. Erabilerari hori *gaileta* “ontzia” adierentzat Hiztegi Batuan bere garaian hartu zen erabakiak sortutako nahastea eta *Euskaltzaindiaren Hiztegi*an gaztelaniazko – ll -dun mailegu gehienek orain arte izan duten trataera kontuan izanda, “jakia” adierentzat *galleta* forma onartzea proposatu du.

Aukera biei buruzko iritziak entzunda, A. Urrutia euskaltzainburuak gaia botoetara eraman nahi den galdetu du, hala egin dadin erabaki da. Botazioaren emaitza honako hau izan da: *galleta* formaren alde 16 boto, *gaileta* formaren alde 4 boto eta 2 boto zuri.

## **3. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.**

Otsaileko Osoko bilkuran esandakoari segida emanez, P. Zabaletak *hiri* sarre-raren 2. adierarako definizio-proposamena bidali du: *Historian zehar herri batzuei eman izan zaien titulua*. Ontzat eman da definizio hori. Definizioarekin batera bidali duen adibidea corpusetako testuetatik jasotako adibide batez ordezkatzearabaki da.

*hiri* sarre-ran 5. adiera bat gehitzea ere proposatu du P. Zabaletak: *Erromak eta*

*erromatarrek beren hiriari ematen zioten izenburua. Latinez urbs, urbis izenak adiera hori baduen arren, euskaraz hiri hitzaren adiera horren lekukotasunik ez dagoenez, proposamena ez onartzea erabaki da.*

Otsailean erabaki gabe geratu zen *hiribildu* sarreraren definizio-proposamena aurkeztu du A. Urrutiak: *Erdi Aroan agintariak emaniko arau berezi batzuen bidez sorturiko herri edo hiriak. Erdi Aroan* dioen lekuan *Historian zehar* eta *hiriak* dioen lekuan *hiria* jarriz proposamena onartzea erabaki da.

#### **4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (XIII). Jasotako oharrak aztertu eta erabaki.**

Otsaileko Osoko bilkuran aurkeztutako zerrendari M. Azkaratek, A. Iñigok eta X. Videgainen egin dizkiote oharrak.

M. Azkarateren ohar batek *protektionista* sarreraren definizioan hitz-ordena bat aldatzea eskatzen zuen. Ontzat eman da proposamena; beste ohar batek, zalantzan jartzen du *tinadizo* sarreraren *Gip.* marka egokia izatea. Hitz horren erabilera hedatu dela ikusirik, markaren beharra berrikustea erabaki da; *traolhitz* sarrerako marraxodun forma ez litzatekeela sartu behar dioen oharra aurkeztu du. Halaber, X. Videgainen ohar batek zalantzan jarri du *traolhitz* aski ezaguna ote den *Euskaltzaindiaren Hiztegian* sartzeko. Hitza aposizio elkarteak ez dela argiturik geratuenez eta Interneteko erabiltzaileen artean arrakasta izan duenez, bere horretan uztea erabaki da.

A. Iñigoren ohar batek *urte* sarreran bi azpisarrera gehitzea eskatu du: *ilargi urte*, *ilargi-urte* eta *eliz urte*, *eliz-urte*. Proposamena onartu egin da, erredakzio-taldeak aurkezturiko definizio eta adibideak barne. Beste proposamen batek *urte anitzeta(ra)*ko sarrera gehitzea eskatzen zuen, ahozko erabileran ezaguna delako. Idatzizko lekukotasunak agertu arte, oraingoz, ez sartzea erabaki da.

## 5. Esku artekoak.

**5.1. Angel Aintziburu ohorezko euskaltzainaren heriotzaren berri** eta hilberri txostena. Ohorezko euskaltzaina martxoaren 5ean zendu zen, 89 urte zituela. Luzaiden jaio zen 1930eko uztailaren 3an. Nekazari, kazetari -Irulegiko Irratian (Nafarroa Beherea), Irati Irratian (Aezkoa) eta Euskalerrria Irratian (Iruñerria)- eta idazlea. Ohorezko euskaltzain izendatua 2014ko maiatzaren 30ean.

Hilberri txostena Xipri Arbelbide ohorezko euskaltzainak prestatzea erabaki da Zuzendaritzan, 2019ko martxoaren 27an egin bilkuran.

**5.2. Elkar Fundazioaren "Ibilbideari saria" Euskaltzaindiari.** Sari hori urteetan egindako lana aitortzeko eta txalotzeko eratu zuen Elkar Fundazioak. 2019an sari hori, Euskaltzaindiari eta Eusko Ikaskuntzari ematea erabaki du Elkar Fundazioak. Saria emateko ekitaldia, maiatzaren 9an egingo da, Andoaingo Bastero kulturgunean.

**5.3. Euskal Herriko Unibertsitatearen Urrezko Domina Euskaltzaindiari.** Urrezko domina jasotzeko ekitaldia urriaren 25ean, ostiralean, egingen da Euskal Herriko Unibertsitateko Leioako campusean. Horrela, egutegian aldaketa egin behar da: urriaren 25eko Osoko bilkura Leioan, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta abenduaren 20ko Osoko bilkura Baionan egingo dira.

**5.4. Allande Socarros Onomastika batzordearen aholkulari.** Onomastika batzordeak Allande Socarros aholkulari izateko eginiko proposamenari erantzunez, Zuzendaritzak proposamena kontuan hartzea erabaki du, 2019ko martxoaren 13an eginiko bilkuran.

### 5.5. Hurrengo bilkurak eta ekitaldiak.

**Euskaltzaindiaren Mendeurrena.** Apirilaren 8an, "Idazkien eta hizkuntzen arteko itzulpena. Eskuizkribuak, inprimakiak, literatura-artxiboak. Euskaltzaindiaren nazioarteko jardunaldia" delakoaren aurkezpena egingo da Bilbon, egoitzan. Egun berean, egitaraua zabaldu eta lo egiteko tokia-eta hartu ahal izateko, mezua igorriko zaie euskaltzainei.

Apirilaren 11n, 2018ko **R. M. Azkue Sariak** emango dira Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan.

**Euskararen Historia Soziala** egitasmoak sustatuta, apirilaren 15ean, astelehenan, *La Vasconia peninsular en las fuentes árabes* liburuaren aurkezpena egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, 11:30ean.

Apirilaren 22an, **Sarako Azoka** egingo da. Bertan, Euskaltzaindiak hiru argitalpen berri aurkeztuko ditu:

- *Euskara Batua eta Ipar Euskal Herria: 1964-2018*. Bilduma: Jagon 19. Prestatzaila: Jean-Baptiste Coyos.
- *1757ko gutuneriari buruzko osagarriak eta gogoetak «Othoi çato etchera»*. Bilduma: Iker 36. Egilea: Xabier Elozegi.
- *Janpierra Lexardoarteren bizitzea edo Basabürüako trajeria*. Bilduma: Euskaltzainak 28. Egilea: Jakes Sarraillet.

**Hurrengo Osoko bilkura** maiatzaren 4an, larunbatean, egingo da Trebiñuko udaletxean, goizeko 10etan. Ondorioz, apirilean ez da Osoko bilkurarik egingo. 12:00etan, berriz, Roberto Gonzalez de Viñaspre euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da, Trebiñuko Done Petri elizan.

## 6. Azken ordukoak.

Ez da egon.

Eta beste aztergairik ez dela, Osoko bilkura bukatutzat eman da, 11:30ean.

Euskaltzainburua,

Andres Urrutia

Idazkaria,

Xabier Kintana

# Ageriko Bilkura

Miriam Urkia euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia

Aretxabaletan, Arkupe kultur etxean

2019ko martxoaren 30ean

Aretxabaletako Arkupe kultur etxean, 12:00etan, Euskaltzaindiak Ageriko bilkura egin du, Joan Mari Torrealdei euskaltzain osoa emeritu mailara igarotzearen ondorioz, 2018ko otsailaren 23ko Osoko bilkuran euskaltzain oso izendatu zen Miriam Urkiaren sarrera-hitzaldia egin eta dagozkion diploma eta Akademiaren ikurra emateko.

Bildu direnak:

Euskaltzain osoak: Andres Urrutia euskaltzainburua, Xarles Videgain buruordea, Xabier Kintana idazkaria, Sagrario Aleman diruzaina, Adolfo Arejita Iker sailburua, Jean-Baptiste “Battittu” Coyos Jagon sailburua, Miren Azkarate, Patxi Goenaga, Roberto González de Viñaspre, Javier Kaltzakorta, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Andoni Sagarna, Ana Toledo, Patxi Uribarren eta Mikel Zalbide.

Euskaltzain ohorezkoak: Paulo Agirrebaltzategi, Luis Baraiazarra, Antonio Campos, Jose Mari Iriondo, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu eta Julen Urkiza.

Euskaltzain urgazleak: Andres Alberdi, Ainhoa Arregi, Izaskun Etxebeste, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Iñaki Irazabalbeitia, Jazinto Iturbe, Jesus Mari Makazaga, Elixabete Perez Gaztelu, Paskual Rekalde, Koro Segurola eta Luis Mari Zaldua.

Erramun Osa euskaltzain urgazle eta idazkariordea eta Joseba Zabaleta kudeatzailea.

Unai Elkoro Aretxabaletako alkatea, Aretxabaletako eta inguruko herrietako agintariak; unibertsitateetako, elkarteetako, erakundeetako eta hedabideetako ki-deak.

Jon Etxabe Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea (UZEI) elkartearen lehendakaria, Imanol Urbietta kudeatzailea eta UZEIko langileak.

Ibon Usarralde Euskaltzaindiko Egitasmoen bateragilea eta Manu Gañan Idazkaritzako teknikaria.

Miriam Urkia euskaltzainaren senideak eta lagunak.

Herriko txistularien doinuarekin eta txalapartaren soinuarekin eman zaio hasiera ekitaldiari. Jarraian, Erramun Osa Euskaltzaindiko idazkariordeak ongi etorria eman die hurreratu diren guztiei, bai eta ekitaldiaren nondik norakoak azaldu ere. Era berean, Euskaltzaindiko Barne-erregielek sarrera-hitzaldiaz diotena irakurri du. Idazkariordearen hitzen ostean, Unai Elkoro Aretxabaletako alkateak halako ekitaldi bat Aretxabaletan egiteagatik poza agertu du eta zorionak eman dizkio Miriam Urkia euskaltzainari.

Andres Urrutia euskaltzainburuak agur laburra egin du, besteak beste, ekitaldiaren garrantzia azpimarratuz. Ondoren Sagrario Aleman eta Jabier Kaltzakorta deitu ditu —Miriam Urkia hautagaitzat aurkeztu zuenetariko bat eta azken sarrera-hitzaldia egin duen euskaltzain osoa, hurrenez hurren—, eta euskaltzain berriaren bila joan daitezen eskatu die.

Bi euskaltzainek lagunduta sartu da batzar aretora Miriam Urkia “Hiztegitik kofradiara” izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzeko. Erantzuna Andoni Sagarna euskaltzainak eman dio *Badator aire freskoa* hitzaldia irakurriz.

Joan Mari Torrealдай gogoratuz hasi du “Hiztegitik kofradiara” mintzaldia Urkiak, eta esan du Torrealдай ordezkatu bainoago 29. aulkia berarekin partekatzen duela: “Joan Mari euskalgintzako arlo askotan ikusi izan dugu bere onena ematen beti, 2003an bere onen hori kentzen saiatu baziren ere. Halako itzala duen Torrealдай handiaren ondoan, beraz, ulertuko duzue txiki eta, Sarrionandiak behinola esan zuen moduan, soinean gabardina handiegia banerama bezala sentitzea. Errespetua, esker ona eta miresmena besterik ez ditut Joan Marirentzat, eta 29. aulkia berarekin partekatzeko ohorea”. Aretxabaletako ikastolaren 50 urteak ere gogoan

izan ditu euskaltzain berriak, “bai, ikastolakumea naiz” aitortuz, harrotasun puntu batekin.

Ondoren, hiztegi-kontuak eta kofradia kontzeptua izan ditu mintzagai Urkiak, “euskara ehuntzeko saregileak eta sare-konpontzaileak beharko ditugulako”. Euskarazko hiztegien historia erreparatu du aretxabaletarrak, eta aitzindarien artean Seber Altube arrasatearra eta bere “Erderatiko-itzak, itz-barriak eta aintxiña-itzak” txostena aipatu ditu. Arantzazuko biltzarra ere ez du ahaztu (“Batasunerako hiztegia atera baitzen, 625 forma, baina garai hartarako lorpen handia”), Euskaltzaindiaren Hiztegitzintza batzordearen sorrera (1981) eta batzordearen lanak eta buru-haustek 80ko hamarkadan; Mikel Zalbidetik 1991n proposatutako 10.000-20.000 hitz inguruko ortografia-hiztegia; Sarako biltzarrean batzordeak landutako “Hiztegi batua: lanketa- eta onespenez-prozedurak” dokumentua; eta 2000. urtean, bederatzi urteren buruan argia ikusi zuen *Hiztegi Batua*, 20.000 forma biltzen zituen hiztegia. “2000. urterako zehaztu zituen Euskaltzaindiak hiztegia bera osatzeko irizpideak ere, makroegitura eta mikroegitura, garaiko estandarrak kontuan hartuta”, azpimarratu du Urkiak, aitzindarien itzala gomutan: “Berandu hartu genuen lexikografia modernoaren trena, baina iritsi ginen, eta ez genuen eserleku txarra hartu gainera. Baina, hori guztia, aurretik oinarriak ezarri zituztenei zor diegu, treneko errailak prest utzi zituzten-eta, baita abiadura handikoa hartzeko ere”.

“Honaino iritsita, 46.000 formatik gorako euskal hiztegi arauemailea adieraz eta adibidez hornitua izatea ez da hutsala, horretarako ia ehun urte behar izan baditugu ere, baina honek ez du etenik”, aurreratu du euskaltzain osoak. “*Euskaltzaindiaren Hiztegia* aitzindaria da hiztegia osatzeko baliatu dituen oinarriak gardentasunez erakusten -adierazi du-. Hor ditugu, hiztegitik sarrera bakoitzaren ondoan, horretarako oinarri izan dituen *Orotariko Euskal Hiztegia*, *XX. mendeko Euskararen Corpusa* eta *Lexikoaren Behatokia*, euskal tradizioa eta egungoa islatzen dutenak. Baina ez hori bakarrik: hiztegitik formak erabakitze baliatu dituen irizpideak, izandako eztabaidak eta erabakiak ere biltzen ditu *Hiztegi Batu Oinarriak*”.

Hau guztia elkarlanaren fruitua dela esan du, beste behin, Aretxabaletako euskaltzainak: “Saregilez josia dago Euskaltzaindia: zein bere aldetik bere sarea ehuntzen, hau da, arautzen. Armiarma-sare handi bat osa dezakegu IKER sailekoen artean. Eta, horrekin batera, ez ditzagun JAGON saileko lagunak ahaztu, sare-konpontzaileak, sareak oraindik erabat bukatu gabe ditugu-eta”. Horren haritik, bere ametsa partekatu du entzuleekin euskaltzain osoak: “Kofradia bat da ames-



ten dudana, saregileak eta sare-konpontzaileak batuko dituen. Eta izan badugu Euskaltzaindia, baina guztiak modu finean saretzea besterik ez da falta, hau da, koordinatzea”.

Eta zertarako delako kofradia? Bada, zerbitzu azkarra eta zorrotza emateko: “Ez dezagun ahaztu gure Akademiaren helburua zerbitzua eskaintzea dela, baina XXI. mendean gaude eta berehalako zerbitzua ere beharrezkoa da, benetako beharrei erantzun nahi badiegu behintzat. Sare-konpontzaileek prestatu beharko dute berehalako eta behin-behineko erantzuna, ondoren saregileek behin betiko lana burutu dezaten, luzamendutan ibili gabe. Honela, zintzo eta azkar erantzun ahal izango diogu txantxetan esan izan den ‘Zalantza non, Euskaltzaindia han’ horri”.

Urkiak 2016ko jauzia aipatu du, Hiztegiak paperetik sarerako jauzia egin zueneko, baina berak uste du gehiago aurreratu daitekeela: “Teknologia berriak eskura ditugu, horiek geure zerbitzura daude eta baliatu egin behar ditugu. Hizkuntza-teknologiaren aroan erabat murgildu beharra dauka Akademiak aurrera egingo badu. Eta dituen baliabide guztiakin, zer ez luke egingo!”.

Ohartu du euskal gizartea goitik behera aldatu dela, eta, horrekin batera, hiztegiak egiteko modua bera: “Egin dezagun urrats bat aurrera eta presta dezagun egungo eta biharko beharrei erantzungo dien eduki integrala: baliabide teknologiko berrietan oinarritutako edukiak, askotarikoak. Hiztegi ortografikotik abiatu ginen, adieraz eta adibidez hornitu genuen, XXI. mendera ekarri dugu. Zergatik ez guztia integratu?”. “Hizkuntzalaritza aplikatuaren garaian gaude -gogoratu du Urkiak-, eta ezin dugu tren hori galdu, honetan ere hizkuntza galduko ez bada, egungo arriskua heriotza digitala baita”.

Miriam Urkiaren mintzaldiaren ostean, hitza Andoni Sagarna euskaltzainak hartu du. Horren erantzuna ere argigarria izan da, eta egokia iruditu zaio bere berbaldian Euskaltzaindiarekin era bateko edo besteko harremanak izan dituzten “merezimendu handiko” emakumezkoak aipatzea, “garai batean eta orain Euskaltzaindiari ekarpenak egin dizkioten emakumeen gorazarrez”. Eta aletu ditu Julia Fernandez-Zabaleta, Julene Azeptitia, Julita Berrojalbiz, Robustene Mujika *Tene*, Madeleine Jauregiberri, Marie Jeanne Minaberri, Karmele Esnal edo Karmele Roetaetxe bezalako euskaltzaleek eginiko esfortzuak eta balentriak.

Sagarnak esan du Euskaltzaindian ere aldatu dela garai bateko joera: azken 15 urtean, 14 euskaltzain oso berri izendatu dira, horietatik 5 emakumezko. Eta

bide horretatik jarraitu behar dela adierazi du. “Aurrera begira, bidezkoa litzateke emakumeen kopurua gizonzkoenarekin berdintzen joatea. Ez bakarrik, gainera, justiziazkoa delako, baita beharrezkoa eta naturala delako ere emakumeentzat eta gizonzkoontzat. Horretarako gauza bakarra egin behar dugu: oztopoak kentzea, batez ere gure burmuinetan sakon txertatuak ditugunak, eta ateak zabaltzea”, adierazi du donostiarrak.

Miriam Urkiaren ibilbide profesionala ere aztertu du Sagarnak, bere ondoan bizi izandako uneak eta esperientziak ahaztu gabe.

Hitzaldiak amaitu ostean, eta euskaltzain berriak Euskaltzaindiaren xede eta helburuei eta euskaltzain izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela hitza eman ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoen domina jantzi eta diploma eman dio Miriam Urkiari.

Ondoren, A. Urrutia euskaltzainburuak hartu du hitza. Hasteko, M. Urkia euskaltzain oso berriari zorionak eman dizkio. Era berean, halako izendapenak, oho-reaz haratago, lan egiteko gonbita direla aditzera eman du. Izan ere, euskararen biziberritzeak, euskara eremu guztietarako gaitzeko ahaleginak, askotarikoen arteko lan erkidea eskatzen du. Horrela, Euskaltzaindiaren Mendeurrena hizpide hartuz, iraganean egin zituztenak gogoratu ditu, bai eta azpimarratu ere euskararen aldeko langintzak ez duela amaierarik eta arian-arian egin behar dela haren alde, haren aldeko engaiamendua berrituz.

Ekitaldi akademikoa amaitutzat emanez, opari eta oroigarrien unea heldu da. Hala, Unai Elkoro alkateak, Udalaren izenean, eta Jon Etxabek, UZEIren izenean, opari bana eman diote M. Urkiari.

Ostean, Herriko Plazan ohorezko aureskua dantzatu eta argazkiak atera dira. Segidan, Aretxabaletako Udalak hurreratu diren guztiei ahogozagarria eskaini die, ekitaldiari amaiera emanez, 13:30ean

Euskaltzainburua,	Idazkaria,
Andres Urrutia	Xabier Kintana